

Osasun-krisiei buruzko gizarte-irudikapenak: A gripearen kasua Mexiko eta Espainiako hedabideetan

Nahia Idoiaga, Lorena Gil De Montes, Jose Francisco Valencia
Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila, Psikologia, UPV/EHU

Ikerketa honetan 2009-2010 urteetan A gripearen (H1N1) pandemiari komunikabideek egindako jarraipena ikertu da Mexiko eta Espainiako egunkari publikatuenetan. Irudikapen Sozialen Teorian oinarrituta, *Collective Symbolic Coping* (CSC) ereduak azaltzen du nola ordena soziala mehatxatzen duten eta komunikabideen arreta bereganatzen duten egoera berriei ematen dieten taldeek. Emaitzetan, lehenik, korrelazio positibo bat aurkitu zen izurritearen hedabideetako estalduraren, infektatutako pertsona kopuruaren eta gizarteak osasunari ematen zion garrantziaren artean. Gainera, ALCESTE softwarearen bidez CSCko faseak identifikatu ahal izan ziren. Bukatzeko, osasun-izurriteekin lotutako gizarte-irudikapenen patroiak errepikatu ziren. Azkenik, irudikapen sozialaren ikerkuntzarako eta komunikabideen roletik eratortzen diren estrategietarako inplikazio teoriko eta aplikatuak eztabaidatzen dira.

GAKO-HITZAK: A gripea · *Collective Symbolic Coping* · Gizarte-irudikapenak · Komunikabideak · Osasun-izurriteak.

Social representations about emerging infectious diseases: The swine flu in the mass media of Mexico and Spain.

The 2009 swine flu was a pandemic influenza involving H1N1 virus. This paper studies how the mass media have treated this issue by analyzing the largest circulation newspapers in Mexico and Spain. According to the Collective Symbolic Coping (CSC), and based on the Social Representation Theory, when an object enters the public sphere grabbing the attention of the media, the public adopts it and share a common understanding. First, a positive correlation between the coverage of the outbreak and influenza-infected and the representation of health as a problem was found. Secondly, the ALCESTE software identifies the steps of the CSC model. Thirdly, patterns of social representations about health epidemics were repeated. Implications for research on social representations and media coverage and to cope with threatening health crisis are discussed.

KEY WORDS: Collective Symbolic Coping · Emerging infectious diseases · Influenza A · Mass media · Social Representations.

Jasotze data: 2014-12-11 *Onartze data:* 2015-04-15

Sarrera

Inguratzan gaituzten gertakarien artean, arrisku-egoerek (pandemiak, hondamendiak, mehatxu kimiko edo nuklearrak, etab.) leku garrantzitsua dute sinbologia sozial kolektiboan. Izan ere, nahiko argi dago komunikabideek gai hauei buruz eginiko kontaktak aktiboki eragiten duela eraikuntza sinbolikoan, harik eta batzuetan arrisku-egoerak krisi-egoera bilakatu arte (Altheide, 2010; Gonzalo eta Farré, 2011).

Ikerketa honetan azken urteetan eragin mediatiko zein sozial handienetarikoa izan duen arrisku-egoera bat hartzen da —A gripearen (H1N1) krisia— komunikabideek haren eraikuntza sinbolikoan izan duten lekua aztertzeko.

1) A gripea (H1N1) 2009-2010eko pandemia

A gripea (H1N1), txerri-gripe gisa ere ezagutua, 2009ko martxoan antzeman zen lehenengo aldiz Mexikon, eta, ondoren, AEBra zabaldu zen. 2009ko apirilean, Ipar Amerikan sortutako izurritearen ondorioz, gripearen birusa oso arin zabaldu zen mundu osoan zehar. Momentu horretatik aurrera, mundu mailako komunikabideak gripear buruzko informazioa barreiatzen hasi ziren eta Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) berak ere onartu zuen historian lehen aldiz pandemia baten garapena unez unez jarraitu ahal izango zuela.

A gripea, gripe arruntaren erraztasun berberaz, pertsona batetik bestera transmititu zen; baina A gripeak arruntak baino infekzio gehiago sortu zituen udan ipar hemisferioan, baita hilabete hotzetan ere, munduko eremu horretan.

Mundu osoan zeharreko herrialdeek neurri bereziak hartu zituzten gripearen kutsatzea ekiditeko edo gutxitzeko, besteak beste, osasun-alertak aktibatuz edo leku publikoak itxiz. Gainera, neurri horien osagarri eta gripe berriari aurre egiteko baliabide nagusitzat hartuta, antibiral eta txertoak ere erosi zituzten.

2009ko ekainean, OMEk gripea pandemia izendatu zuen, birusa kutsagarria zela eta pertsonen artean eta herrialde batetik bestera erraz barreiatzen zela onartuz. Momentu horretan, 30.000 kasu zeuden baieztatuta 74 herrialdetan.

Halere, 2009ko uda aldera OME kritikak jasotzen hasi zen, batez ere komunikabideen eskutik, besteak beste, gehiegizko alarma sortzea, gardentasun falta, pandemiaren definizioa aldatzea edota industria farmazeutikoarekin interes-gatazka izatea leporatzen zioten. OMEk erantzun zien emandako erantzunek aurrezarritako protokoloari erantzuten zieten, baina, halere, ikerketa-mekanismoak aktibatu behar izan zituen, hots, Azterketa Komitea martxan jarri zuen, eta Europar Kontseilura pandemiaren aurrean buruturiko kudeaketari buruz deklaratzera joan zen.

2010eko abuztuaren 10ean, OMEk A gripearen (H1N1) pandemia bukatu zela esan zuen, zeinek, zabalkunde handia izan arren, heriotza-tasa baxua izan zuen. Gaixotasun horrek eraginda, guztira 18.449 pertsona hil ziren 214 herrialdetan.

2) Collective Symbolic Coping

CSC ereduak azaltzen du nola ematen dieten taldeek zentzua ordena soziala mehatxatzen duten egoera berriei. Hau da, une horretara arte izandako mundua ulertzeko era mantentzeko ahaleginean, gertaera berri baten aurrean kolektiboak gauzatzen duen jarduera da (Wagner *et al.*, 2002).

Irudikapen Sozialen Teorian oinarrituta (Moscovici, 1988; Wagner eta Hayes, 2005), *coping* terminoaren (Lazarus eta Folkman, 1984) maila kolektiboa nabarmentzen du. Izan ere, *coping*-a normalean banakoen portaerarekin lotu egin da eta ez maila kolektiboan gerta daitezkeen gertaerekin, nahiz eta banakoaren *coping* esfortzuak osagai kolektibo indartsuak izan (Davison eta Pennebaker, 1996). Eredue honetan erabiltzen den *coping*-ak jatorrizkotik zenbait aldaketa izan ditu (Wagner *et al.*, 2002): hasteko, *coping* kolektiboak norbanakoa eta kolektiboa barneratzen ditu; bigarren, norbanako *coping*-a bezala aurreintentzios eta esfortzurik gabe lan egiteko pentsatuta dago; hirugarren, edozein eskaerari erantzun sinboliko bat eskaintzen dio, funtzionatzeko duen egokitasunetik haratago; eta laugarren, dinamikoa izateko pentsatuta dago eta ideiei etengabeko ebaluazioan aldatzen uzten die (Lazarus eta Folkman, 1984).

Coping kolektiboak komunikabideek sortzen dituzte une horretara arte gizarteak izaniko bizitzeko era mehatxatzen duten «zenbait gauza» eraiki eta berriak balira bezala hedatzean. Komunikazio-sarean barneratuta egonda, pertsonak, bai banako gisa bai eta talde gisa ere, *item* berriek sortutako erronka baloratzen dute (Orr, Sagi eta Bar-On, 2000; Wagner 1998).

Gizarte modernoetako esfera publikoa hedabideen komunikazio-ekintzen bidez sortua eta mantendua da (Thompson, 1995). Pertsonen gehiengo zabal batek honela eraikitzen ditu bere uste, jarrera eta irudikapenak: egunkari, aldizkari edota liburuak irakurriaz zein telebista- edota irrati-saioetara joaz. Zenbat eta fenomeno batek hurbiltasun gutxiago izan norbere bizi-espazioarekiko, orduan eta mendekotasun handiagoa izango dugu hedabideek esanikoarekin, eta gutxiago fidatuko gara pertsonarteko komunikazioaz. Horrenbestez, komunikazio mediatikoak pertsonarteko komunikazioa menderatzen du zientzia, teknologia eta berrikuntza ekonomikoak jorratzen diren gaitan (Wagner, 2002). Nahiz eta publikoa banakoz osatua dagoen, *coping* sinbolikoa, taldearentzako erronka izanik, batez ere gertaera kolektiboa da, norbanakoaren ideien gainetik nabarmentzen dena. Esfera publikoa zirkulazio sinbolikoko gunea da, eta berrikuntza sinbolikoa eratzen den lapikotzat har daiteke (Jovchelovitch, 1995).

Beraz, CSCren bidez sortutako irudikapenek baliabideak ematen dizkiete banakoei gertaera berriek interpretatzeko eta aurre egiteko (Gilles *et al.*, 2011). Halere, prozesu horrek zenbait baldintza edo maila bete behar ditu (Wagner *et al.*, 2002): lehenik, *coping* sinbolikoa martxan jartzeko, gertaera berri bat garrantzitsu gisa eta ordura arteko egoeraren edo lortu nahiko litzatekeen egoeraren eraldatzaile gisa aurkeztu behar da; bigarrenik, gertaera berria errotu ahal izateko interpretazio, irudi eta metafora ulergarri bihurtu behar dute komunikabideek; hirugarrenik, interpretazio ezberdinek bateratzeko bidea hartu behar dute gertakari berriaren

oinarrizko ezaugarriak definituz; eta laugarrenik, interpretazioek, epe luzera, ulermen zientifiko zehatzagoa eskainiko dute.

Horrenbestez, azal ditzagun puntu horiek banan-banan.

Kontzientzia hartzea (Awareness):

Gertaera baten kontzientzia-hartze publikoa egoteko beharrezkoa da sozialki garrantzitsutzat hartua izatea (Wagner *et al.*, 2002). Hau da, *agenda-setting* (McCombs, 1981) prozesuaren bidez, komunikabideek gertaerak garrantzitsu bilakatzen dituzte pertsonen kontzientzia-hartzea bideratuz.

Desadostasuna (Divergence):

Fase honetan, gertaera berriari buruzko interpretazioak sortzen dira anbiguotasuna eta nahasketa sortuz. Hasieran behintzat, interpretazio berriak metaforikoki lotuta daude aurrejakintzei, zeintzuek jakintza-iturri gisa jokatzeko duten (Lakoff, 1987; Wagner, Elejabarrieta eta Lahnteiner, 1995). Jakintza-iturrien dibertsitate handia dagoen neurrian, hasieran eraikitzen diren metaforen artean desadostasunak egon daitezke.

Konbergentzia (Convergence):

Bai komunikabideetan bai eta norbanakoen artean ere komunikazio berriek interpretazio ezberdinen arteko lehia sortzen dute. Horietako batzuk baztertuak izaten dira eta beste batzuek gehiengoaren onarpena jasotzen dute (Sperber, 1985), eta, azkenik, taldeak hitzarmenezko interpretazio berri bat sortzen du (Bartlett, 1932).

Normalizazioa (Normalization):

Laugarren fase honetan, gertaeraren azalpena jakintza komunean integratu eta arrunt bilakatzen da. Halere, CSCren teorian azpimarratzen den bezala (Wagner *et al.*, 2002), *copying* sinbolikoa larrialdiko erantzuna da kolektiboak erroturik duen bizi-estiloa arriskuan jartzen dutenen kontra. Taldeak larrialdi-une horietan sortutako irudiak ez ditu zertan denbora luzez egonkor eta nagusi bilakatu. Irudiak ahuldu daitezke, baldin eta agendatik ateratzen badira edota beraien alderdi emozionala soil bihurtzen bada komunikabideen diskurtsoa normalizatuz. Alabaina, normalizazio-egoera hori ez da itzulezina, eztabaida politikoak berriro pitz baitezake prozesua (Wagner *et al.*, 2002). Gainera, kontuan izan behar dugu, normalizazioa hamarkadak iraun dezakeen prozesu konplexua dela eta, beraz, batzuetan aztertzen zaila dela (Bauer, 1998).

Horrenbestez, CSCren teoria erabilgarria da ordena soziala mehatxatzen duten gertakariak deskribatzeko. Izan ere, jada burutu diren ikerketetan behatu denez (Hibino eta Nagata, 2006; Wagner *et al.*, 2002), gaiak komunikabideetan presentzia handia izatea eta zenbait marko interpretatzaile erabiltzea kontzientzia-hartze eta desadostasun-faseen ezaugarriak dira (Hibino eta Nagata, 2006). Bestalde, konbergentzia-fasea gaiari buruzko estalduraren beherakadarekin eta funts gabeko edo gutxiko markoen desagertzearekin lotu ahalko genuke. Bukatzeko, normalizazio-

fasea, behatzeko zaila izaten da; izan ere, jada aipatu dugun bezala, denbora asko iraun ohi duen eta korapilatsua den prozesua da (Bauer, 1998).

Bestalde, eta faseen ezaugarriekin jarraituaz, aipatu beharra dago CSCko zenbait fasek (batez ere desadostasun-faseak) ziurgabetasuna sortzen dutela, mehatxagarria den gertakariarekiko pertsonen duten babes sinbolikoaren beharra handiagotuz. Ziurgabetasunak «besteekikotasuna» (*othering*) bezalako aurre-hartze (*coping*) estrategien sorkuntza ahalbidetzen du. Ideia hori Norbere Kategorizazioaren Teoriatik (Turner *et al.*, 1987) eratorria den Ziurgabetasun Subjektiboaren Gutxitze Ereduak babesten du (Grieve & Hogg, 1999; Hogg, 2000). Eredu horrek argudiatzen du ziurgabetasuna gutxitzea eta gertakariari zentzua ematea pertsonen bizitzako bi motibazio indartsu direla. Ziurgabetasuna egoera ezatsegina da (Mullin & Hogg, 1999), kontrol-pertzepzioa gutxitu eta beldurra bezalako sentimendu negatiboak sortzen dituena. Pertsonen beren taldean desadostasunak eta bat-etortze falta behatzean agertzen da ziurgabetasuna, une horietan pertsonak ziurgabetasuna gutxitzen saiatzen dira norbere talde-identifikazioa areagotuz edo talde arteko desberdintasunak nabarmenduaz (Hohman, Hogg & Bligh, 2010; Mullin & Hogg, 1999; Reid & Hogg, 2005). Horrenbestez, Ziurgabetasun Subjektiboaren Gutxitze Ereduak CSC zehatz dezake (Gilles *et al.*, 2013). Izan ere, desadostasun-fasearen ezaugarri tipikoa dugu ziurgabetasuna, bertan agertzen diren diskurtsoek sortua, eta horrenbestez zenbait autorek (Gilles *et al.*, 2013) «besteekikotasuna» fase horretako ezaugarria dela proposatu dute.

Hasiera batean, CSC eredia bioteknologiarekin zerikusia zuten gertaerak aztertze erabili bazen ere, badago osasun-izurriteak aztertze erabili duenik ere. Hain zuzen ere, hegazti-gripeari buruz eginiko ikerketa batean (Gilles *et al.*, 2013) aurkitu egin zen CSC eredia erabilgarria zela osasun-izurriteak aztertze, mehatxu fisiko bat aurkezteaz gain gizartearentzako mehatxu sinboliko bat ere aurkezten zutelako (Joffe, 1999). Gilles eta kideek buruturiko ikerketa horretan ondorioztatu zuten izurriteek eta bioteknologiak antzeko eragina zutela ezarrita zegoen ordena soziala jakintza-maila zientifikotik mehatxatzeko orduan. Halere, ikertzaile horiek, hegazti-gripearen kasuan, kontzientzia-hartze eta desadostasun-faseen zantzuak aurkitu zituzten arren, ezin izan zuten normalizazio-faserik antzeman.

Antzeko ikuspuntu batetik, eta izurriteak inguratzen dituzten aktore kolektiboak aztertuta, Wagner-Egge eta lankideek (2011) Suitzan txerri-gripearen inguruko gizarte-irudikapenak aztertu zituzten. Beraien lanak ondorioztatu zuenez, horrelako osasun-gripeen aurrean pertsonen zenbait heroi, biktima eta bilauren irudikapen kolektiboa eraikitzen zuten. Adibidez, kasu horretan adituak (ikertzaile, mediku, etab.) heroi gisa definitu zituzten sinesgarritzat joaz. Bestalde, osasun-agintari edota politikariak hasieran positiboki baloratu ziren arren, gero ez-eraginkortzat jo ziren. Bilauet dagokienez, alde batetik komunikabideak aipatu zituzten parte-hartzaileek, beldurraren erabilera interesatua egitea leporatuta, edo are okerrago, mailarik altueneko botere gaizkileen txotxongilo huts izatea. Bestalde, farmazeutikoak eta antzeko enpresa pribatuak ere bilautzat jo zituzten. Bukatzeko, gripearen biktimatzat herrialde behartsuak edota gutxien garatutakoak jo zituzten, nahiz eta guztiz erugabetzat ez jo, garbitasun falta izatea leporatu baitzieten. Horrenbestez, autore

horiek ondorioztatu zuten talde bakoitzari esleitutako ezaugarriek gizarteari osasun-izurriteen aurrean sortutako gatazka eta bat ez datozen aldeei zentzua emateko (Wagner *et al.*, 2002) irudikapen sinbolikoak sortzeko balio dutela

Beraz, eta aurreko guztian oinarrituz, lan honen helburua hau da: aztertzea A gripeak osasun-izurrite gisa Mexiko eta Espainiako egunkarietan izan zuen trataerak zer ondorio izan zituen gizartearen irudikapen kolektiboan. Horretarako, jorraturiko garapen teorikoan oinarrituta, honako hipotesi hauek plazaratzen ditugu:

- H1.- Hasteko, izurrite horrek komunikabideetan izandako trataerak CSC abiaraziko du osasun-izurriteei buruzko gizarte-irudikapenetan. Horrenbestez, hipotesizat dugu CSC osatzen duten faseak behatu ahalko ditugula A gripearen garapenean zehar.
- H2.- Bigarrenik, desadostasun-fasean batez ere «besteekikotasuna» behatu ahal izango dugu, hau da, talde arteko desberdintasunak indartzea eta norbere taldearekiko identifikazioa areagotzea.
- H3.- Bukatzeko, aldeztatik pertsonen irudikapen sozialetan txerri-gripearen aurrean aurkitutako biktima, heroi eta bilauen patroia komunikabideen estalduran ere errepikatzea espero dugu.

Hau da, gure lanaren bidez frogatu nahi dugu diskurtso mediatikoak baldintzatu zuela CSCren bidez A gripeari buruz konkretuki, baina baita osasun-izurriteei buruz ere era zabalago batean, dugun irudikapen kolektiboa.

Metodoa

1) Lagina eta analisi-unitatea

Lagina hautatzeko Mexiko eta Espainiako egunkari hedatuenak erabili ziren, hau da, *El Universal* eta *El País* hurrenez hurren.

Denbora-aldiari dagokionez, 2009ko apirilaren 24tik, OMEko zuzendari orokor Margaret Chan-ek Larrialdi Komitea batu zuenetik eta «Nazioarteko Interesdun Osasun Publikoko Larrialdia» piztea gomendatu zutenetik, 2010eko abuztuaren 10era, Chan-ek pandemia bukatutzat jo zuen arte, aztertu ziren egunkariak. Guztira 142 portada, 142 artikulua eta 25 editorial aztertu ziren.

2) Diseinua eta kodifikazioa

Aztertutako laginaren analisia egiteko, lehenik eta behin, *El País* eta *El Universal* egunkariak eginiko A gripearen krisiaren estalduraren jarraipena denboran zehar aztertu zen, testuinguru epidemiologikoan kokatuaz.

Gainera, lerro-buruak ere aztertu ziren, eta horretarako beraietan aipatutako autore nagusien azterketa egin zen egunkari bakoitzean (lerro-buruetan honako aktore hauetariko zeintzuk aipatzen ziren: hiritarrak, nazioko agintariak, kontinenteko agintariak, mundu mailako agintariak edota OME, elementuetako bakoitza era dikotomikoan kodifikatu zelarik egote/ez egote gisa).

Bukatzeko, artikulu eta editorialen eduki-analisia burutu zen testuaren azterketa bidez. Horretarako, corpusaren sailkapen automatikoa egiten duen Alceste programa erabili zen ohiko eduki-analisetan sor daitezkeen fidagarritasun- eta baliozkotasun-arazoak ekiditeko (Reinert, 1996; ikus ere Bauer, 2000; Klein eta Likata, 2003). Softwareak egiten zuen lehenengo gauza hiztegi bat osatzea izan zen; horretarako «lanabes-hitzak» baztertu (artikulu, izenorde, juntagailu) eta «hitz osoak» (izen, aditz, adjektibo, izenlagun) soilik eduki zituen kontutan. «Hitz osoak» maiztasun minimo batekin errepikatuz gero (gutxienez lau aldiz lehenetsita dago), Alcestek erroetara laburtu zituen (adibidez Mexik- erroak Mexikar, Mexiko, Mexikoko etab. har ditzake). Analisiaren lehenengo urratsa corpora testuinguruko oinarritzko unitatetan (Elementary Contextual Units —ECU—) banatzea izan zen, zeintzuek esaldi batez edo biz osatuak zeuden (30-50 hitz inguru) (Kronberger eta Wagner, 2000). ECUak eta hitz-erroak gurutzatu egin ziren kontingentzia-taula bat sortzeko, zeinek hiztegiaren banaketa azalduko duen ECUekiko. Kontingentzia-taula horretatik abiatuta distantzia karratuen matrize bat sortu zen, non, bi ECU hurbilekoak izango diren, aztertutako hitzen bat partekatzen badute (ikus Reinert 1996).


Ondoren, *cluster* analisi hierarkiko beherakor bat burutu zuen Alcestek aipaturiko distantzia karratuen matrizearekin. Estrategia horren bidez, testuen interpretazioa errazten da, zeren klaseak batera ematen diren hitzetatik ateratzen baititu. Klase bakoitzak gutxienez ECUen % 5 izan behar du. Estrategia ikertzaile horrek corpusean dauden unibertso lexikal garrantzitsuenak identifikatzen lagunduko du (Reinert, 1996).

Klase lexikalak identifikatu ostean, aldagai «pasibo»ekin (aldagai askeak) lotura esanguratsurik duten azter daiteke. Gure kasuan, aldagai pasiboak argitalpen-egunkaria (*El Universal* edo *El País*) eta argitalpen-hilabetea (2009ko apiriletik 2010eko abuztura arte) izan ziren. Izan ere, lortutako emaitzak leku eta denboran kokatzeak testuinguru konkretu baten barruan kokatzea ahalbidetuko digu, bai eta osasun-krisiaren sorleku izateak edo ez izateak eta denboraren joanak gizarte-irudikapenetan duten eragina aztertzea ere. Horretarako, artikulu bakoitza argitaratutako egunkari eta dataekin kodifikatuta sartu zen Alceste programan, ECU bakoitza informazio horrekin lotuta geratu zelarik. Gainera, khi karratu estatistikoa ere kalkulatu zuen Alcestek, klase bakoitzak aldagai askeekin duen lotura zehazteko. Bukatzeko, analisi osagarri gisa, korrespondentzia aniztunen analisi faktoriala ere eskaintzen digu programa horrek.

Emaitzak

Lehenik eta behin, bi egunkariak osasun-krisiari emaniko erantzuna aztertu zen. Ondoko grafikoan ikus ditzakegu *El País* egunkari espainiarrean argitaratutako A gripear buruzko portada, artikulu kopurua eta Espainian egondako A gripearen kasuak eta haietatik eratorritako heriotza kopurua. Baita CISEk (Centro de Investigaciones Sociológicas) buruturiko inkesten¹ arabera espainiarrek osasun-arazo gisa hautematen duten maila ere.


1. CISEko barometroen denborazko serieen «Percepción de los principales problemas de los españoles» barnean «El problema de la Salud»eko indizeak hartu izan ziren (CIS, 2012: «Percepción de los principales problemas de los españoles», <http://www.cis.es/export/sites/default/-Archivos/Indicadores/documentos_html/TresProblemas.html>).



1. irudia. 2009ko apiriletik 2010eko abuztura A gripeari lotuta Espainian egondako kasu, heriotza, portada, artikulu kopurua eta CISEk buruturiko inkestaren arabera espainiarrek osasun-sistemari ematen dioten garrantzia. Iturria: norberak egina.

Spearman-en korrelazio-indizea aztertuta esan dezakegu korrelazio esanguratsua dagoela *El Paíseko* artikulu kopuruaren eta Espainiako A gripe kasuen artean $r(17) = 0,565, p < 0,05$. Halere, grafikoan bertan ikus dezakegun bezala, artikulu gehienak A gripea Espainiara heldu baino arinago argitaratu ziren. Bestalde, aipatu beharra dago korrelazio positiboa topatu zela publikatutako artikulu kopuruaren eta espainiarrek osasun-sistemari emandako garrantziaren artean eta $r(17) = 0,578, p < 0,05$, baita CISEko emaitza horien eta kasu $r(17) = 0,605, p < 0,05$ eta heriotza $r(17) = 0,518, p < 0,05$ kopuruaren artean ere.

El Universal egunkariko A gripeari buruzko portada eta artikulu kopuruak eta Mexikon egondako A gripearen kasuak eta haietatik eratorritako heriotza kopurua aztertuta, ondorengo grafikoak beha dezakegu²:




2. irudia. 2009ko apiriletik 2010eko abuztura A gripea zela-eta Mexikon egondako kasu, heriotza, portada eta artikulu kopurua. Iturria: norberak egina.

2. Mexikon ez zen hilez hileko inkesta soziologikorik aurkitu eta horregatik ez da gehitu puntu hori atal honetan.

Spearman-en korrelazio-indizea aztertuta ikusi da korrelazio esanguratsuak daudela artikulu kopuruaren eta A gripe kasuen artean $r(17) = 0,850, p < 0,01$; baita artikulu kopuruaren eta heriotza kopuruaren artean ere $r(17) = 0,898, p < 0,01$. Korrelazio esanguratsuak aurkitu dira, orobat, portada kopuruaren eta A gripe kasuen artean $r(17) = 0,799, p < 0,01$ eta portada kopuruaren eta heriotzen $r(17) = 0,751, p < 0,01$ artean. Beraz, Mexikon artikulu eta portada kopurua zuzenki lotua zen herrialdeko gaixotasunaren errealitatearekin.

1) Portaden deskribapen orokorra

Guztira 142 portada aztertu ziren, horietatik 52 (% 36,6) *El País* egunkarikoak ziren eta 90 (% 63,4) *El Universal*ekoak. Argitalpen-datei dagokienez, albisten % 79,6 2009ko urrirako argitaratua izan zen, honako banaketa honi jarraituz:



3. irudia. 2009ko apiriletik 2010eko abuztura *El País* eta *El Universal* egunkarietan A gripeari eskainitako portada kopurua. Iturria: norberak egina.


Izenburuetan aipatutako aktore edo pertsonaia nagusiei dagokienez, desberdintasun esanguratsuak aurkitu dira aztertutako egunkariaren artean. Izan ere, hiritarrei proportzionalki erreferentzia gehiago egiten zitzaien *El Universal*en (% 56,6), *El País*en (% 43,4) baino $X^2(1) = 3,26, p < 0,05$; norbere herriko agintariei *EL Universal*en (% 75,9) *El País*en baino gehiago (% 24,1) $X^2(1) = 6,58, p < 0,01$ eta munduko mandatariei *El País*en (% 70,6) *El Universal*en (% 29,4) baino gehiago $X^2(1) = 9,60, p < 0,002$.

2) Artikuluen eta editorialen eduki-analisia

Aztergai izan den korpusean (129.462 hitz zeuden, zeintzuetatik 11.561 hitz ezberdinak ziren) A gripeari erreferentzia egiten dioten artikuluak eta editoriak barneratu ditugu.

Alceste-ren prozesuari jarraiki (ikus Boudes eta Cellier, 1998), azpiklasetan banatu zen, baina soilik 5 baino maiztasun handiagoko hitzak erabiliz. Konkretuki

analisi hierarkiko behakorrak korpua 3.142 ECUtan banatu zuen, zeintzuetatik 1.933 landu ziren (% 62) eta 5 ECU klase eratorri ziren. Lehenengo klaseak 364 ECU izan zituen (% 19), bigarren klaseak 505 ECU (% 26), hirugarren klaseak 484 ECU (% 25), laugarren klaseak 201 (% 10) eta bosgarren klaseak 379 ECU (% 20).



4. irudia. Cluster banaketa. Sailkapen hierarkiko behakorra.

Klaseen edukia

Alceste-ren aurretiazko erabilerei jarraiki (Boudes eta Cellier, 1998) eratorritako klase bakoitzeko hiztegia azpiklasetan banatu da aurkezpena erraztearren (hitz bakoitzaren maiztasuna parentesi artean agertzen da). Ondorengo klaseak lortu dira:

- 1 Klasea. A gripetik babesteko prebentzio-jarduerak.
- 2 Klasea. Pandemia globala eta OMEren erantzuna.
- 3 Klasea. Txertoen sorkuntza eta aplikazioa.
- 4 Klasea. Hildakoak eta kaltetuak A gripearen ondorioz.
- 5 Klasea. Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa.

1 Klasea. A Gripetik babesteko prebentzio-jarduerak (ECUen % 19).

1. *Gorputz-atalak*: esku (144), sexual (52), aho (48), bere (45), muxu (39), doministiku (38)...
2. *Prebentziorako lanabesak*: maskara (80), garbitu (48), gaixotu (45), aho-estalki (42), eskularru (41), musuzapi (39)...
3. *Enpresak*: enpresa (85), lan (84), langileria (76), langile (63), bezero (58)
4. *Beste*: plan (59), kontingentzia (50), maiztasun (38), ekidin (37)...

Garrantzi berezia eman zitzaion A gripearen kasuan prebentzioa lantzeari. Horretarako, lehen azpiklasean batuta ditugu babes-mailan bereziki zaindu behar ziren gorputzeko atalak eta bigarrenean prebentzio horretarako lanabesak. Bereziki famatu bihurtu ziren bigarren azpialde horren barnean agertzen diren aho-maskarak, A gripearen ikur bihurtuta. Hirugarrenean, enpresa-munduari egiten zaio erreferentzia prebentzioaren aplikazio-esparru nagusia izan baitzen. Jada aipatu dugun bezala, Alcestek klase bakoitzeko zenbait ECU tipiko eratoritzen ditu, honako hauek dira lehenengo klaseko adibide batzuk:

ECU 966 Khi2 = 54 (*El País*, 2009-9-5):

Laster izurriterako kit bat eskuratu ahal izango da: maskara, eskularruak, termometroa eta eskuetarako desinfektatzailea dituena. Edozein neurri gutxi da. Dena dago pentsatua eta protokolizatua. La Caixa eta Bankinterrek bezeroei eragiketak Internet bidez egitea aholkatuko diete. Eta A gripea enpresetara ere helduko da eta lanleketan distantzia soziala bultzatuko da.

ECU 526 Khi2 = 39 (*El País*, 2009-7-10):

Auzia ez da hain erraza. Alarma handituz doa eta Mexikoren inguruko herrialdeak kutsatu ditu. Bai AEB baita Erdialdeko Amerikako zenbait herrialde ere arreta biziko neurriak hartzen ari dira eta Mexiko Hiritik datozen hegaldiak kontrolatzen.

2 Klasea. *Pandemia globala eta OMEren erantzuna* (ECUen % 26).

1. *A gripearen jatorria*: birus (207), izurrite (138), mutazio (107), txori (87), infekzio (69) h5n1 (66), berri (58), gripe (49)...
2. *OME*: OME (215), chan (86), fukuda (64), adierazi (46)...
3. *Maila globala*: zabalkuntza (66), fase (51), alerta (46), mundu (44)...
4. *Beste*: kausa (56), arin (56), dirudi (48)...

Lehenengo azpiklasea A gripear buruzkoa da eta bigarrena OME, hango zuzendariei (Margaret Chan, Keiji Fukuda) eta haiek erabilitako diskurtsoei buruzkoa. Ondorengo adibideetan OMEk A gripea lantzeko eta plazaratzeko erabilitako zenbait adierazpen biltzen dira:

ECU 386 Khi2 = 34 (*El País*, 2009-5-16):

Atzo, OMEko zuzendari orokorrak, Margaret Chan-ek, gripe berriaren hedapenaren aurrean erlaxatzeko arinegi zela adierazi zuen eta birusak duen izurrite potentziala azpimarratu zuen.

ECU 503 Khi2 = 28 (*El País*, 2009-1-13):

OMERI alarmismoa zabaltzea eta laborategi farmazeutikoen onuran jokatzeari leporatu diote gripearen intzidentziaren bukaerarekin bat, zein izurrite izendatua izan zen igaro den ekainean.

3 Klasea. *Txertoen sorkuntza eta aplikazioa* (ECUen % 25).

1. *Sortutako bakunak*: txerto (703), dosi (246), milioi (163), txertatze (99), jarri (86), produktu (68), sorta (57), urtaroko (53), erosi (56), medikamentu (50), farmako (44)...
2. *Farmazeutikoak*: laborategi (206), talde (83), farmazeutikoa (56), sanofi (54), entsegu (51), birmex (47), ikertzaile (44)...
3. *Beste*: abendu (46), arrisku (43), urri (41)...

Lehenengo azpiklaseak bakunen sorkuntza-prozesuari egiten dio erreferentzia eta bigarrenak sorkuntza-prozesu hori aurrera eramane zuten farmazeutikoei. Ondorengo esaldietan ikus daitekeen bezala, egunkariek bereziki jarraitu zuten txertoen eskaera, sorkuntza- eta banaketa-prozesua baita laborategi farmazeutikoek jardura horietan izandako lekua ere. Ondoren ikus ditzakegu klase honen zenbait adibide:

ECU 2229 Khi2 = 59 (*El Universal*, 2009-8-16):

Honela, laborategia txertoen ekoizpenaz arduratzen den bitartean, Birmex-ek, sinatutako kontratuaren arabera, antigenoaren fabrikazio- eta banaketa-lanak ikuskatu beharko ditu.

4 Klasea. *Hildakoak eta kaltetuak A gripearen ondorioz* (ECUen % 10).

1. *Hildakoak*: heriotza (152), hildako (95), hil (90), zentze (80), zendu (71), herio (78)...
2. *Kaltetuen erregistroa*: kasu (307), erdietsi (253), erregistratu (171), zenbatu (155), baieztatu (152), zenbaki (126), zifra (115), pneumonia (82), azken (75), guztira (58), igo (55), kutsatu (47), piku (46)...
3. *Beste*: ssa (106), hazi (104), abuztu (79)...

Lehenengo azpiklaseak, A gripearen ondorioz gertaturiko heriotzei egiten die erreferentzia, eta bigarrena A gripearen kaltetuen erregistroaren isla da. Gogora dezagun, ondorengo adibideetan ikusiko dugun bezala, kaltetuen erregistroa etengabe eguneratua izan zela, bereziki hildako kopuruari erreferentzia eginaz (baita A gripearen heriotza-tasak oso baxuak ziren herrialdeetan ere, adibidez, Espainian).

ECU 2638 Khi2 = 53 (*El Universal*, 2009-11-26):

Nazioko heriotza-zifra 589 hildako da, gaitz honekin kutsatutako baieztatutako 64.585 kasurekin. (Pasa den) Azaroaren 18tik azaroaren 23ra 1.020 pertsona gehiago daude kutsatuta.

5 Klasea. *Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa* (ECUen % 20).

1. *Geldiarazi ziren jarduerak*: eskola (195), ikastetxe (173), hezkuntza (140), geldiarazi (133), jardura (119), ikasle (101), ekintza (63), zaintza (59), neurri (55)...
2. *Agintariak*: idazkari (190), angel (131), cordova (122), jose (99), calderón (99), felipe (79), ebrad (70), ahued (56), villalobos (55)...
3. *Beste*: mintegi (66), epidemiolo (66), itzuli (55)...

Lehenengo azpiklaseak geldiarazitako jarduerari egiten die erreferentzia, eta bigarrenak alor ezberdinetako agintari eta erakundeak batzen ditu, zeintzuek ekintza horiek gelditzearen ardura hartu zuten. Gogora dezagun, A gripearen hasierako uneetan Mexiko, eta bereziki Mexiko Hiria hiriburua, guztiz geldiarazi zutela agintariek, bereziki jardura publiko oro bertan behera utzita, honako adibide hauetan ikus dezakegun bezala:

ECU 2112 $\text{Khi}^2 = 50$ (*El Universal*, 2009-7-26):

Eskola guztiak itxeko erabakia ez da momentuko erabakia, dio Armando Ahued-ek. Programa hau Mexiko Hiriko ikuskaritza epidemiologikoko komite zientifikoak diseinatua izan zen, zeinek agintari lokal eta federalak biltzen dituen, baita Osasunaren Mundu Erakundeko ordezkariak ere.

ECU 1274 $\text{Khi}^2 = 41$ (*El Universal*, 2009-4-27):

Garraio publikoan hartu beharreko neurriak zehazteko, bere gobernu-taldekoekin bildu ostean, hiriburuko administrazioko titullarrak irratian eginiko elkarrizketan jarduerak masiboki eteteari buruz hitz egin zuen.

Aldagai askeekiko erlazioak

Independentzia-testen bidez Alcestek klase lexikal eta aldagai askeen mailen arteko loturak zenbatzen ditu. Baldin eta klase baten barne diren ECUen maila esanguratsua mailaren bateko aldagai aske bati esanguratsuki lotuago agertzen bada beste mailetako konbinazioei baino, klasea maila horri lotua dagoela baloratuko du. Programak analisi berbera bideratzen du beste klase eta aldagai askearen maila guztiekin.

Gure kasuan, artikulua argitaraturiko egunkariekiko sailkatu dira, *El País* egunkariari lehenengo (A gripetik babesteko prebentzio-jarduerak) $\text{X}^2(1) = 26,81$, $p < 0,001$ eta bigarren klasea $\text{X}^2(1) = 211,70$, $p < 0,001$ (Pandemia globala eta OMEren erantzuna) lotu zaizkio. *El Universal* egunkariari, berriz, hirugarren (Txertoen sorkuntza eta aplikazioa) $\text{X}^2(1) = 15,22$, $p < 0,001$, laugarren (Hildakoak eta kaltetuak A gripearen ondorioz) $\text{X}^2(1) = 41,11$, $p < 0,001$ eta bosgarrena (Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa) $\text{X}^2(1) = 126,81$, $p < 0,001$. Beraz, era batean ikus daiteke *El Universal*en diskurtsoa A gripearen krisiari Mexikon emandako erantzunean oinarritu zela batik bat, eta *El Paíseko*a, berriz, maila globalago batean A gripearen zabalkundearen.

Beste aldagai aske bat artikulua eta editorialen argitalpen-hilabetea izan da, honako emaitza hauek lortuta:

Hilabetea	KLASEAK	
Apirilak 9	Pandemia globala eta OMEren erantzuna	$\text{X}^2(1) = 8,48$, $p < 0,001$
	A gripetik babesteko prebentzio-jarduerak	$\text{X}^2(1) = 16,83$, $p < 0,001$
Maiatzak 9	Pandemia globala eta OMEren erantzuna	$\text{X}^2(1) = 22,63$, $p < 0,001$
	Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa	$\text{X}^2(1) = 18,11$, $p < 0,001$
Ekainak 9	Pandemia globala eta OMEren erantzuna	$\text{X}^2(1) = 49,40$, $p < 0,001$
Uztailak 9	A gripetik babesteko prebentzio-jarduerak	$\text{X}^2(1) = 66,37$, $p < 0,001$
Abuztuak 9	Txertoen sorkuntza eta aplikazioa	$\text{X}^2(1) = 56,26$, $p < 0,001$
	Hildakoak eta kaltetuak A gripearen ondorioz	$\text{X}^2(1) = 3,99$, $p < 0,001$
	A gripetik babesteko prebentzio-jarduerak	$\text{X}^2(1) = 11,94$, $p < 0,001$
Irailak 9	Hildakoak eta kaltetuak A gripearen ondorioz	$\text{X}^2(1) = 7,25$, $p < 0,001$
	Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa	$\text{X}^2(1) = 3,47$, $p < 0,001$
Urriak 9		

Azaroak 9	Txertoen sorkuntza eta aplikazioa	$X^2(1) = 6,59, p < 0,001$
	Hildakoak eta kaltetuak A gripearen ondorioz	$X^2(1) = 23,51, p < 0,001$
Abenduak 9	Txertoen sorkuntza eta aplikazioa	$X^2(1) = 4,68, p < 0,001$
	Hildakoak eta kaltetuak A gripearen ondorioz	$X^2(1) = 11,68, p < 0,001$
Urtarrilak 10	Txertoen sorkuntza eta aplikazioa	$X^2(1) = 59,44, p < 0,001$
	Gobernuak geldiarazitako jarduerak	$X^2(1) = 24,25, p < 0,001$
Otsailak 10	Txertoen sorkuntza eta aplikazioa	$X^2(1) = 57,48, p < 0,001$
2010eko martxotik uztailera		
Abuztuak 10	Pandemia globala eta OMEren erantzuna	$X^2(1) = 35,24, p < 0,001$

1. taula. Klaseen banaketa hilabeteko.

Horrenbestez, 2009ko apiriletik 2010eko otsailera diskurtso-jario nabarmena zegoen. Izan ere, hilabete horietan klase guztiek dute presentzia, behin eta berriro agertuta. Otsailetik aurrera, ordea, A gripeari buruzko diskurtso-maila nabarmenki txikitzen joan zen abuztuan, pandemia bukatutzat jo zenean, alde zuzenetik egoniko klase guztietako bat bakarrik (Pandemia globala eta OMEren erantzuna) azaleratu zelarik.

Horrez gain, Alceste programarekin burututako korrespondentzia aniztunen analisi faktorialaren bidez, 3 faktoreko banaketa bat erdietsi zen, non lehen faktoreak bariantzaren % 57,5 zuen, bigarrenak % 27,5 eta hirugarrenak % 15. Grafikoki 5. irudian ikus dezakegun banaketa lortu zen, non ardatz horizontalak lehenengo faktorea adierazten duen eta ardatz bertikalak bigarrena.

Beha dezakegun bezala, ardatz horizontala izurritearen tokiko mailatik maila mundial edo globalera doa. Ezkerraldean, batez ere Mexikon (Chiapas, Yucatan, Mexiko Hiria, Felipe Calderon...) hartutako salbuespen- (eten, klase, ekintza, etenaldi...) eta prebentzio-neurriak (aho, zapi, eskularru, ekidin...) ageri dira, eta eskuinaldean, berriz, krisiaren izaera mundiala (mundial, mundu, ipar, herrialde, hedatze...) eta OMEk egindako kaltetuen zenbatzeak eta deklarazioak (OME, zenbatze, Margaret Chan, erregistro, hildako, pandemia...). Bestalde, ardatz bertikalak osasun-krisi honetako pertsonaiak banatzen ditu. Punturik gorenean enpresa farmazeutikoak ageri dira (farmazeut, laborategi, salmenta, sanofi...), erdialdean, agintari politikoak (Margaret, Fukuda, Chan, Felipe Calderon...) eta medikuak (erizain, mediku, osasun...). Azkenik, behealdean biktima (hildako, kutsatu, heriotza, zentze...) eta kaltetuak (ikasle, hezkuntza, neurri, publiko, etete...).

```

+-----+-----+-----+-----+-----+-----+
18 |                                     garapen
17 |          fabrik+ salmenta  medikamendu ikertzaile urtaroko
16 |    eros+farmako produktu talde entsegu txertatze birmex
15 | parlamentar+ sorta arrisku laborategi txert+ firm+dosi antigeno
14 |          Sanofi milioi aplik+ farmazeut+ aventis
13 |          banatzaile abendua urria
12 |          pisu|
11 |          pertsonal          |
10 |          bere          |
9 |          |
8 |          |
7 |          |
6 |          |
5 |          |
4 |          |
3 |          |
2 |          |
1 |          |
0 |          |
1 |          |
2 |          |
3 |          |
4 |          |
5 |          |
6 |          |
7 |          |
8 |          |
9 |          |
10 |          |
11 |          |
12 |          |
13 |          |
14 |          |
15 |          |
16 |          |
17 |          |
18 |          |
19 |          |
+-----+-----+-----+-----+-----+-----+

```

5. irudia. Korrespondentzia aniztunen analisi faktoriala.

Ondorioak eta eztabaidak

Burutu berri diren analisisetan lortutako emaitzetan oinarriturik, komunikabideek A gripearen (H1N1) garrantzi eta eraketa sinbolikoan ondorio garrantzitsuak izan dituztela frogatu da. Izan ere, ikerketa-arazoa bermatuz, ikerlan honek emaitza interesgarriak plazaratzen ditu komunikabideek A gripeari buruz helarazten duten esanahiari buruz. Beraz, gure oinarri teorikoekiko garapenean hedabideek errealitate sozialaren errepresentazioaren sorkuntzan eta transmisioan duten garrantzia berresten dute.

1) Krisiaren aurkezpena egunkarietan

A gripearen krisiak prentsan izandako isla bereziki garrantzitsua izan zen 2009ko apiriletik 2009ko urrira arte, momentu horretatik aurrera, ordea, A gripearen inguruko

eztabaida publikoa presentzia galtzen joan zen egunkarietako portaden azterketaren arabera. Beraz, *agenda-setting*-aren (McCombs eta Shawin, 1972) teoriari jarraiki esan dezakegu aipaturiko hilabete horietan zehar berebiziko oihartzuna izan zuela gripeak gizartean, eta arazoaren agerikotasuna (Entman, 1993; McCombs, Lopez eta Llamas, 2000), hau da, gripearen inguruko eztabaida, alor publikotik desagertzen joan zela denboraren poderioz. Gainera, korrelazio-analisiek frogatu zuten artikulu kopuruaren helarazpenak erlazioa zuela mehatxu objektiboarekin. Beste era batera esanda, korrelazio adierazgarri eta positiboa aurkitu zen artikulu kopuru eta aurkitutako A gripe kasuen artean *El País* eta *El Universal*en kasuan: zenbat eta kasu kopurua handiagoa izan, orduan eta artikulu gehiago argitaratzen zen. Era berean, korrelazio horiek handiagoak ziren *El Universal*en kasuan *El Paísen* kasuan baino, hau da, mehatxu objektiboa areago gertatzen den testuinguruan, Mexikon gure kasuan, komunikabideen jarraipen zehatzagoa egiten da.

Gai honek *El País* (Espainia) eta *El Universal* (Mexiko) egunkarietan izandako jarraipenak erkatzen baditugu, aztertu beharreko lehen gauza argitalpenen testuingurua dugu. *El País* egunkarian artikulu gehienak A gripea Espainiara epidemia gisa heldu baino lehenago argitaratu ziren; Mexikon, berriz, korrelazio zuzena eta altua egon zen kasu kopuruaren eta argitaratutako artikulu zein portaden artean. Beraz, nolabait esan daiteke Mexikoko hedabideak momentuan bizitzen ari ziren osasun-krisialdi bati estaldura eman ziola bereziki. Espainiakoak, ordea, gerta zitekeen krisialdi hipotetiko baten aurrean publikatu zuen gai honi buruz.

Mass medien bitartez sortu nahi den iritzi publikoan goi-elite politikoek izandako eragina aztertzean ere (Entman, 1993), desberdintasunak azaldu ziren bi egunkarien artean. Izen ere, Mexikoko diskurtsoa gehiago lotzen zen norbere herrialde, hiritar edota nazio mailako agintariekin, eta Espainiakoak, berriz, lotuago zegoen nazioarteko erakundeekin, A gripearen krisia mundu mailako arazotzat hartuta. Beste era batera adierazita, gaixotasun-krisiaren bi ikuspegi kulturalak agertu ziren Mexikon eta Espainian. Laplantine-k (1999), eritasun eta osasunaren antropologian oinarrituta, bereizten du eritasuna lehen pertsonan eta eritasuna hirugarren pertsonan. Nahiz eta frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz hitz bakarria dagoen kontzeptu hori adierazteko, ingelesez gehiago daude: «illness» eta «disease». Lehenengoa erabiltzen du pertsonaren esperientzia subjektiboa adierazteko, eta bigarrena eritasuna pertsonatik kanpo dagoen objektua dela adierazteko. Esate baterako, hiesaren inguruko ikerketek frogatu dute subjektu inplikatuak, hau da seropositiboak eta hiesaren aurkako gobernuz kanpoko erakundeetako kideak, lehen pertsonako eritasunaren irudikapena babesten dutela; subjektu ez inplikatuak, aldiz, hirugarren pertsonarena (Agirrezabal eta Valencia, 2004). Ikerketa honetan, berrien aktore eta espazio adierazien analisiak frogatu duenez, ikus daiteke nola Mexikok hobesten duen A gripearen lehen pertsonako irudikapena eta Espainiak hirugarren pertsonarena.

2) *Collective Symbolic Coping-a (CSC) egunkarietan*

Bai Mexikon baita Espainian ere lehenengo hiruhilabetekoan (2009ko apirila, maiatza eta ekaina) berebiziko nabaritasuna izan zuen A gripeak egunkarietan, bi

egunetik behineko maiztasunarekin gaia portadetan agertu zelarik. Horrek, *agenda-setting* prozesuari jarraituaz, gertaera gizartearentzat garrantzitsu bilakarazi zuen eta harekiko kontzientzia hartzera bultzarazi. Izan ere, Espainian CISeko ikerketek eskaintako indize objektiboek (hilero plazaratzen dituen Barometroak) adierazi zuten, korrelazio positiboa zegoen komunikabideek A gripeari emandako estalduraren eta gizarteak osasun-sistemarekiko zuen arduraren artean, beraz, hementxe dugu kontzientzia-hartze prozesuaren isla nabari bat.

Hortik aurrera, 2009ko uztailetik hasi eta 2010eko otsaila arte, *desadostasun-fasearen* ezaugarriak beha ditzakegu, zeren ideia-dibertsitate handia beha baitaiteke sasoi horretan. Izan ere, artikuluetan aipaturiko klase guztiak, hau da, egunkarietako testuetatik eratorritako ideia nagusi guztiak azaleratzen dira: gobernuen kudeaketari lotutakoak, mundu mailako erakundeei lotutakoak, txertoei buruzkoak, enpresen ingurukoak, etab.

Desadostasun-fase horren barruan deigarria da, 4. irudiko multzokatu analisisan ikus dezakegun bezala, bigarren eta laugarren klaseak elkarri loturik agertzea. Hau da, «Pandemia globala eta OMEren erantzuna» eta «Hildakoak eta kaltetuak A gripearen ondorioz» cluster-banaketan lotuak agertzen dira diskurtso gisa. Diskurtso horiek A gripea arrisku- edo beldur-egoerekin lotzen dute, *pandemia* edo *hildakoak* bezalako hitz-mugen erabilera bultzatuaz. Beraz, aztertu beharra legoke nola eragiten duen beldur eta arriskuaren transmisio horrek gizarte-iguripenetan.

Bestalde, lehenengo klasea eta bosgarrena ere elkarri loturik daude cluster-banaketakoko dendograman, hau da, «A gripetik babesteko prebentzio-jarduerak» eta «Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa», hain zuzen ere, erantzukizun-egozpenaren *frame*-arekin nabariak lotutakoak, batera agertzen dira. Aurretiaz aipatu dugun bezala, A gripearen krisialdi honetan erakundeei egotzitako erantzukizuna, bereziki OMEri, oso garrantzitsua eta aldi berean eztabaidatua izan zen. Izan ere, zenbait ikerketek «arrisku-komunikaziotik» haratago «krisi-komunikazio» gisa ere definitu dituzte OMEk A gripeari buruz eginiko adierazpenak (Rocamora, 2012).

Bukatzeko, eta bigarren hipotesian aipatzen genuen bezala, desadostasun-fase honetan «besteekikotasuna» behatu izan dugu. Izan ere, fase horren barruan, eta osasun-krisia mundu mailara zabaltzen hasi zelarik, gaixotasuna Mexiko edo mexikarrekin lotzea nahiko ohikoa izan zen. Horren adierazle dira *El Pais* egunkariarekin lotutako lehen bi klaseetan agertutako zenbait ECU: «Mexikoren inguruko herrialdeak kutsatu ditu»; «Mexiko Hiritik datozen hegaldiak kontrolatzen»; «Mexikotik datozen hegaldiei betoa jarri die (...) ez du jarrera bera AEBrekiko ezta Kanadarekiko ere»; «Hartuak ziren H1N1-aren erruz neurri komertzialak, baina beti Mexikoren kontra». Horrenbestez, gure kasuan ere baieztatu dezakegu «besteekikotasuna» bereziki desadostasun-fasearen ezaugarria dela (Gilles *et al.*, 2013).

Gainera «besteekikotasun»arekin lotutako emaitza hauek bat datoz kategorizazioa eta barne-taldearen babes-estrategiak ziurgabetasunarekin lotzen dituzten lanekin (Hogg, 2000). Horrenbestez, CSCk eta ziurgabetasuna gutxitzeko motibazioak talde arteko fenomenoek desadostasun-fasean gertatzeko duten probabilitate nabariagoa

azaltzen dute. Gainera, kanpo-taldea erruduntzat jotzea sarritan jada existitzen diren talde horiekiko irudikapenetan oinarritzen da (Joffe & Staerkle, 2007). Irudikapenek material sinbolikoa eskaintzen duten heinean, desadostasun-fasean erabilia izan daiteke egoera berri eta mehatxagarriari zentzua aurkitzeko (Gilles *et al.*, 2013).

Konbergentzia-faseari dagokionez, 2010eko urtariletik aurrera agertzen da gaiari buruzko estalduraren beherakadarekin eta funts gutxiko edo gabeko markoa desagertzearekin. Garbiago oraindik, 2010eko abuztuan, OMEk pandemia bukatutzat jo zuenean agertutako diskurtsoan, nolabaiteko adostasuna aurki zitekeen A gripearen izateari edota erasokortasun-mailari buruz. Aipagarria da, orobat, sasoi horretara arte iraun zuen diskurtso bakarra «Pandemia globala eta OMEren erantzuna», aurretiaz aipatu bezala, arrisku- edo beldur-interpretazioekin lotua dela. Beraz, diskurtso mota horrek «arrisku-gizarte global»aren (Beck, 2002, 2006) eraketan izan litzakeen eraginei buruz sakonago ikertzeari beharrezko deritzogu.

Bukatzeko, beste krisi epidemiologikoen azterketetan bezala (Gilles *et al.*, 2013), ez zen *normalizazio-faserik* antzeman. Horren arrazoia pandemiaren aurretik eginiko iragarpenak edota izurrite-arriskua maiztasun erlatiboz pairatzea izan daitezke. Horren ordeztu, behatutako fasea «paradoxikoki normalizatutako egoera» (Rosenbrock *et al.*, 2000; Setbon, 2000) izan zen, non desadostasunak agertu ziren gizartearen arrisku-pertzepzioaren eta izurritearen errealitate epidemiologikoaren artean. Izan ere, aurretiazko izurriteetatik sortutako irudikapenek gertaera berrien kontzientzia-hartze fasean eragin dezakete (Gilles *et al.*, 2013). Beraz, lehen hipotesia bere osotasunean baieztatzen da, normalizazio-fasearen kasuan izan ezik.

3) Osasun-izurriteen esanahi soziala

CSCren bidez frogatu dugu prentsak parte aktiboa duela osasun-izurriteei buruz dugun esanahiaren eraikuntzan. Gainera, emaitzetan ikusi ahal izan dugun osasun-izurriteen deskribapena bat dator Wagner-Egge eta kolaboratzaileek (2011) Suitzatan txerri-gripearen inguruan aurkituriko gizarte-irudikapenekin. Izan ere, gure kasuan korrespondentzia aniztunen analisi faktorialak frogatu zuen nola bereizirik agertzen ziren medikuen, agintarien, farmazeutikoen eta biktimen paperak, heroi, bilau eta biktima gisa definituta.

Hasteko prentsaren aburuz, eta batez ere osasun-izurritearen konbergentzia-fasearen isla gisa, izurrite honetako bilauak farmazeutikoak eta interes ekonomikoen mesedetan haiei men egin zieten agintariak lirateke. Konbergentzia-fasean gailendu zen bigarren klaseko honako ECU hau horren adierazle: «(*El País*, 2009-1-13) OMERi alarmismoa zabaltzea eta laborategi farmazeutikoen onuran jokatzeko leporatu diote gripearen intzidentziaren bukaerarekin bat, zein izurrite izendatua izan zen igarotako ekainean».

Bestalde, mediku eta osasun-langileak prebentzio-hitzekin (maskara, aho, zapi sexu, esku, osasun...) nola lotzen diren ikus dezakegu korrespondentzia-analisan bertan. Izan ere, krisian zehar osasun-erreferente bihurtu ziren agintariak baino jarduera gardenagoa izanik, beraz sinesgarritasunak heroi bihurtu zituela ondoriozta daiteke. Azkenik, biktimak batez ere herritarrak izan ziren kasu honetan, bereziki

mexikarrak, bai heriotza-tasa altuekin lotuta bai eta herrialdean izandako jardueren eteteekin ere.

Bukatzeko, korrespondentzia aniztunen analisi faktorialak krisiaren izaera globala biziki nabarmendu du. Argi ikusten da bertan, nola hasieran tokiko izaera (Mexiko) izatetik arin mundu-mailako arazo izatera pasa zen, «mundu-global-pandemia» hitzak elkarri loturik agertzen dira, horrek arestian aipatutako «arrisku-gizarte global»aren (Beck, 2002, 2006) teoria indartzen duelarik.

Beraz, eta azterturiko guztia elkarri loturik, baieztatu dezakegu ezen komunikabideek erabilitako diskurtsoek eragin zuzena dutela gizarte-irudikapenen sorkuntza-prozesuan CSCren bidez. Gainera, CSC teoriak osatu egiten du *agenda-setting*-aren teoria, artikuluen kopuruak bai iritzi publikoan duen eraginagatik (CISeko «osasanaren arazo» galderarekin), bai mehatxu objektiboko indizeekin duen harremanagatik (kasu kopuruekin, hiltze kopuruekin eta herrialde bietako korrelazio desberdinekin), baita denboran zehar agertzen diren CSCko faseen garapenarekin ere.

Horrenbestez, komunikabideek pertsonen duten arriskuaren pertzepzioan eta hari erantzuteko jokabidean eragina izaki, berebiziko garrantzia izango luke osasun-komunikazio eraginkorragoetarako politikak bultzatzeak. Gainera, gure ustetan, oso positiboa litzateke komunikazio horiek CSCn aipaturiko normalizazio-fase batera heltzea gizarteari osasun-izurriteen aurrean irudikapen berriak eraikitzeke jakintza-iturriak emanaz.

Erreferentziak

- Aguirrezabal, A. eta Valencia, J.F. (2004): «Representaciones Sociales: principios organizadores y anclajes del discurso del SIDA», *Encuentros en Psicología Social*, **2(1)**, 9-15.
- Altheide, D. (2010): «Risk communication and the discourse of fear», *Catalan Journal of Communication & Cultural Studies*, **2(2)**, 145-158.
- Bartlett, F.C. (1932): *Remembering*, Cambridge University Press Cambridge.
- Bauer, M. W. (1998): « The medicalisation of science news: From the 'rocket-scalpel' to the 'gene-meteorite' complex», *Social Science Information*, **37**, 731–751. doi:10.1177/053901898037004009
- , (2000): «Science in the media as cultural indicator: Contextualizing surveys with media analysis», in M. Dierkes eta C. Von Grote (arg.), *Between understanding and trust: the public, science and technology*, Routledge, Amsterdam, 157–178.
- Beck, U. (2002): *La sociedad del riesgo global*, Siglo XXI de España Editores, Madril.
- , (2006): *La sociedad del riesgo: hacia una nueva modernidad*, Paidós Ibérica, Bartzelona.
- Davison, J., eta Pennebaker, J.W. (1996): «Social psychosomatics», in: E.T Higgins eta A.W. Kruglanski (arg.), *Social psychology: Handbook of basic principles*, Guilford Press, New York, 102-132.
- Entman, R. (1993): «Framing: Toward Clarification of a Fractured Paradigm», *Journal of Communication*, **41**, 51-58.

- Gilles, I., Bangerter, A., Clemence, A., Green, E.G.T., Krings, F., Mouton, A., Rigaud, D., Staerkle, C. eta Wagner-Egger, P. (2013): «Collective symbolic coping with disease threat and othering: A case study of avian influenza», *British Journal of Social Psychology*, **52(1)**, 83-102. DOI:10.1111/j.2044-8309.2011.02048.x
- Gonzalo J.L. eta Farré, J. (2011): *Teoría de la comunicación de riesgo*, Editorial UOC, Bartzelona.
- Grieve, P., eta Hogg, M. A. (1999): «Subjective uncertainty and intergroup discrimination in the minimal group situation», *Personality and Social Psychology Bulletin*, **25**, 926–940. doi:10.1177/01461672992511002
- Hibino, A., eta Nagata, M. (2006): «Biotechnology in the Japanese media: Comparative analysis of newspaper articles on genetic engineering between Japan and Europe», *Asian Journal of Social Psychology*, **9**, 12–23.
- Hogg, M. A. (2000): «Subjective uncertainty reduction through self-categorization: A motivational theory of social identity processes», *European Review of Social Psychology*, **11**, 223–255. doi:10.1080/14792772043000040
- Hohman, Z. P., Hogg, M. A., eta Bligh, M. C. (2010): «Identity and intergroup leadership: Asymmetrical political and national identification in response to uncertainty», *Self and Identity*, **9**, 113–128. doi:10.1080/15298860802605937
- Joffe, H. (1999): *Risk and the "other"*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Joffe, H. eta Staerkle, C. (2007): «The centrality of the self-control ethos in Western aspersions regarding outgroups: A social representational analysis of common stereotype content», *Culture and Psychology*, **13**, 395–418. doi:10.1177/1354067X07082750
- Jovchelovitch, S. (1995): «Social representations in and of the public sphere: Towards a theoretical articulation», *Journal of Social Psychology*, **30**, 383-404.
- Klein, O., eta Licata, L. (2003): «When group representations serve social change: The speeches of Patrice Lumumba during the Congolese decolonization», *British Journal of Social Psychology*, **42**, 571–593.
- Kronberger, N., eta Wagner, W. (2000): «Keywords in context: The statistical analysis of text and open-ended responses», in G. Gaskell eta M. Bauer (arg.), *Methods for qualitative analysis*, Sage, London, 299–317.
- Lakoff, G. (1987): *Women, fire and dangerous things*, University of Chicago Press, Chicago.
- Laplantine, F. (1999): *Antropología de la enfermedad. Estudio etnológico de representaciones etiológicas y terapéuticas en la sociedad occidental contemporánea*, Del Sol, Buenos Aires.
- Lazarus, R. S., eta Folkman, S. (1984): *Stress, appraisal and coping*, Springer, New York.
- McCombs, M. E. (1981): «The agenda-setting approach», in D. Nimmo eta K. Sanders (arg.), *Handbook of political communication*, Sage, Beverly Hills, 121–140.
- McCombs, M., Lopez-Escobar, E. eta Llamas, J. P. (2000): «Setting the agenda of attributes in the 1996 spanish general election», *Journal of Communication*, **50(2)**, 77-92.
- McCombs, M.E. eta Shaw, D.L. (1972): «The Agenda-Setting Function of Mass Media. *Public Opinion Quarterly*», **36**, 176-187.
- Moscovici, S. (1988): «Notes towards a description of social representations», *European Journal of Social Psychology*, **18**, 211–250.
- Mullin, B. A. eta Hogg, M. A. (1999): «Motivation for group membership: The role of subjective importance and uncertainty reduction», *Basic and Applied Social Psychology*, **21**, 91–102. doi:10.1207/15324839951036443
- Orr, E., Sagi, S., & Bar-On, D. (2000): «Social representations in use: Israeli and Palestinian high school students' collective coping and defence», *Papers on Social Representations-Online*, **9**, 2.1-2.20 (<http://www.swp.unilinz.ac.at/content/psr/index.htm>).

- Reid, S. A., & Hogg, M. A. (2005): «Uncertainty reduction, self-enhancement, and in-group identification», *Personality and Social Psychology Bulletin*, **31**, 804–817. doi:10.1177/0146167204271708
- Reinert, M. (1996): *Alceste* (Version 3.0), Images, Toulouse.
- Rocamora Villena, V. (2012): *De la Comunicación de Riesgos a la Comunicación de Crisis. La OMS en el caso de la gripe A (H1N1)*. "III Congreso Internacional de la AE-IC "Comunicación y Riesgo"-n aurkeztutako komunikazioa. Tarragona, urtarrilak 18-20 (paper).
- Rosenbrock, R., Dubois-Arber, F., Moers, M., Pinell, P., Schaeffer, D., eta Setbon, M. (2000): «The normalization of AIDS in Western European countries», *Social Science and Medicine*, **50**, 1607–1629.
- Setbon, M. (2000): «La normalisation paradoxale du sida [The paradoxical normalization of AIDS] », *Revue Française de Sociologie*, **41**, 61–78.
- Sperber, D. eta Wilson, D. (1986): *Relevance-communication and cognition*, Blackwell, Oxford.
- Thompson, J. B. (1995): *The media and modernity: A social theory of the media*, Polity Press, Cambridge.
- Turner, J. C., Hogg, M. A., Oakes, P. J., Reicher, S., eta Wetherell, M. S. (1987): *Rediscovering the social group: A self-categorization theory*, Basil Blackwell, Oxford.
- Wagner-Egger, P., Bangerter, A., Gilles, I., Green, E. G. T., Rigaud, D., Krings, F., Starkle, C. eta Clémence, A. (2011): «Lay perceptions of collectives at the outbreak of the H1N1 epidemic: Heroes, villains and victims», *Public Understanding of Science*, **20**, 461–476. DOI:10.1177/0963662510393605
- Wagner, W. (1998): «Social representations and beyond-brute facts, symbolic coping and domesticated worlds», *Culture and Psychology*, **4**, 297-329.
- Wagner, W., Elejebarrieta, F., Lahnsteiner, I. (1995): «How the sperm dominates the ovum-Objectification by metaphor in the social representation conception», *European Journal of Social Psychology*, **25**, 671-688.
- Wagner, W., & Hayes, N. (2005): *Everyday discourse and common sense: The theory of social representations*, Palgrave Macmillan, Basingstoke.
- Wagner, W., Kronberger, N., eta Seifert, F. (2002): «Collective symbolic coping with new technology: Knowledge, images and public discourse», *British Journal of Social Psychology*, **41**, 323–343.

